

## **LUR-JAUSI BATEK MENDITXO TUNELAREN ERAIKUNTZA LANETAN ERAGINA IZAN DU(DONOSTIAKO 2. INGURABIDEA).**

Gaur goizaldean (azaroak 24, astelehena) izandako lur-jausi batek Donostiako 2. Ingurabidearen eraikuntza lanen barruan Astigarragako udalerrian dagoen Menditxo tunelaren inguruan garrantzizko eragina izan du. Lur-jausiak, zeinaren arrazoiak ekipo teknikoek aztertzen diharduten, Donostiako 2. Ingurabidearen eraikuntza lanen barruan Errenteria-Astigarraga zatian eraikitzen ari den tunelaren ekialdeko sarreran eragin zuzena izan du.

Tekniko zein giza baliabide guztiak berehala ezarri dira martxan gertatutakoaren arrazoiak eta gertakaria zenbateraino iritsi den zehazteko eta aldi berean lur-jausiaren ondoan dagoen aldearen egonkortasuna ziurtatzeko. Bidegi eta enpresa eraikitzailearen langileak etengabe ari dira lanean jazoera ahalik eta azkarren konpon dadin.

Lur-jausia, Petritegiko (edateko uraren tratamendurako) estazioaren inguruan jazo denez, Añarbeko Ur Mankomunitatearen ur-hodietan ere eragina izan du. Tangetan lehendik ura bazegoenez, gertakari honek ez du momentuz erabiltzaileen ur-horniketan arazorik sortu. Añarbeko Urak, Bidegi eta UTE Bigarrenako langileak (2. Ingurabideko Errenteria-Astigarraga zatiaren eraikuntza lanen enpresa esleipenduna) goizetik elkar lanean ari dira ur-horniketa bere normaltasunera ahalik eta azkarren berreskuratzeke.